

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

**Honako hauen aldaketa behin betiko onartzea: Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskalak**

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta zerbitzu publikoak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasa eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzeko erabakiaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da, eta, ondoren, aldaketa horren testu osoa argitaratzen da.

Behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, uztailearen 13ko 29/1998 Lege jurisdikzionaletan aurreikusitako moduan.

Burgelu, 2024ko abenduaren 17a

*Alkate-lehendakaria*

*NATIVIDAD LOPEZ DE MUNAIN ALZOLA*

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zergari buruzko foru-arau berezian aurreikusitakoaren arabera, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eskatzen du ordenantza honen arabera. Ordenantza honen parte da aplikatu beharreko tarifa eta bilketa-aldia jasotzen dituen eranskina.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

**II. ZERGA EGITATEA****3. artikulua**

1. Zerga egitatea da landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziak dituzte ondasun higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna:

- Ondasun higiezinaren edo ondasun higiezin horiei atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazio kontzesioa.
- Azalera eskubide erreala.
- Gozamen eskubide erreala.
- Jabetza eskubidea.

2. Aurreko paragrafoan azaldutako zerga gaietako bat, ezarritako hurrenkerari jarraituz, gertatuz gero, ondasun higiezina ez da egongo zergaren kargapean beste modalitateetan.

3. Zerga honi dagokionez, zerga ordenantza honetako 4. artikuluan zehazten da zer diren landa eta hiri ondasun higiezinak eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinak.

4. Ondasun higiezin bat hainbat udalerritan badago, zerga honi dagokionez, udalerrri bakoitzean hartzen duen azaleraren arabera izango da batekoa eta bestekoa.

**4. artikulua**

1. Katastrorako ez beste ezertarako, ondasun higiezina da izaera bera eta bakarra duen lurzatia, baldin eta udalerrri baten barruan dago, poligono batek mugatzen badu eta poligono horrek jabe baten edo batzuen (pro indiviso) espazio eremua mugatzen badu, bai eta, hala bada, jabea edozein dela ere, eremu horretako eraikuntzak, higiezina dela eta titularrak dituen gainerako eskubideak gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higiezinak dira:

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinen elementu pribatuak, jabetza horizontaleko araubide berezian daudenak; elkarri lotutako elementu pribatuek osatutako multzoak, baldin eta egintza bateratuan eskuratu badira, eta, arauz ezartzen diren baldintzetan, trastelekuak eta aparkalekuak, pertsona baten erabilera eta gozamen eskusiboari eta iraunkorrari pro indiviso atxikiak badira. Katastro baloraziorako ez beste ezertarako, elementu komunak arauz ezartzen den bezala gehituko zaizkie ondasun higieziei.

b) Artikulu honetako 4. idatz zatian aipatzen direnak.

c) Ondasun higiezin gaineko edo ondasun higiezin horiek atxikita dauden zerbitzu publikoen gaineko administrazioko emakida baten eta azalera eskubidearen eremua, salbu eta goragoko letretan azaldutako kasuak gertatzen direnean.

2. Honako hauek dira hiri ondasun higiezinak:

a) Hiri lurzorua, arau subsidiarioetan urbanizatzeko egokitze gaitz jotzen den lurzorua, lurzoru urbanizagarria edo, Estatuaren legeetan lurzoru urbanizagarriari berez dagozkion hirigintza ahalmenak izanik, autonomia erkidegoaren legeriak haren baliokidetzat jotzen duen lurzorua.

Hiri ondasun higiezinak joko dira, halaber, bide zolatuetan edo espaloi zintaridunak dituzten lurzoruak, horretaz gain estolderia, ur hornidura, argi indarraren hornidura eta argiteria publikoa badituzte, eta hiri izaera duten eraikuntzak kokatuta dauden lurruak.

Halaber, nekazaritzako legerian xedatzen denaren aurka zatikatutako lurruak, zatikapenak lurruak nekazaritzarako erabiltzea eragozten badu, eta horrek lurren landa izaeraren inolako aldaketarik ez badakar zerga honetakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiri eraikuntzak; hona xehatuta:

1.a Eraikinak, egiteko erabili den materiala, hartzen duten tokia eta lurzoru mota eta ematen zaion erabilera edozein delarik ere, eraikitze moduagatik guztiz eramangarriak izan arren, eta hartzen duten lurra eraikuntzaren jabearena izan ez arren; halaber, eraikin horien parekoak diren merkataritzako eta industriako instalazioak, adibidez, dikeak, andelak eta zamatze tokiak.

2.a Urbanizazio eta hobekuntza obrak, hala nola lur berdinketak eta espazio irekiak erabiltzeko egiten diren obrak. Horien artean sartzen dira azoka barrutiak; aire zabaleko deposituak; kirola egiteko zelai edo instalazioak; kaiak; aparkalekuak eta eraikuntzen ondoko espazioak.

3.a Ondoko idatz zatian berariaz landakotzat kalifikatuta ez dauden eraikinak.

Ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak barne hartzen dituen ez da hiri-lurzorutzat hartuko.

3. Landa lurzorua da aurreko idatz zatian xedatzen denaren arabera hiri lurzorua ez dena, ezaugarri bereziko ondasun higiezin batean ez badago.

Zerga honen ondorioetarako, landa ondasun higiezinak dira:

a) Hiri lurruak ez direnak, aurreko idatz zatiaren a) letran ezarritakoaren arabera.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

b) Landa eraikinak, hau da, nekazaritzarako eraikinak edo instalazioak, landa lurretan daudenak eta ezinbestekoak direnak nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiapena egiteko.

Zerga honen ondorioetarako, ez dira eraikuntzat hartuko nekazaritza, abeltzaintza edo baso ustiapenean erabilitako estalgune edo estalpe txikiak, horiek eraikitze erabilitako materialak iraupen laburrekoak eta arinak izaki, erabilera hauetarako baino balio ez badute: lurra hobeto aprobetxatzeko, laboreak babesteko, eraikinik ez dagoen eremuetan abereak aldi baterako gordetzeko, edo jarduerarekin lotutako tresnak eta lanabesak gordetzeko. Era berean, zerga honetarako ez dira eraikuntzat joko landa lurretan egindako obra eta hobekuntzak, lurren balioaren zati bereizezin izango baitira.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariazko erabilera duen multzoa osatzen dute (lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio eta hobekuntza obrak). Multzoak, berez, horiek guztiak bateratzen dituzenez, eta beti batera eutsifuntzionatzeko, eta horregatik ondasun higiezin bakartzat jotzen da katastroaren ondorioetarako.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak joko dira, aurreko paragrafoaren arabera, talde hauetakoak:

- Energia elektrikoa eta gasa ekoizti eta petrolio birfintzekoak, eta zentral nuklearrak.
- Presak, ur jauziak eta urtegiak, horien hondo edo ontzia barne; ureztatze-erabiltzen direnak izan ezik.
- Bidesaridun autobide, errepide eta tunelak.
- Merkataritzarako aireportuak eta portuak.

### III. SALBUESPENAK

#### 5. artikulua

1. Ondasun hauek ez daude zergaren kargapean:

- Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren, udal erakundeen edo toki erakundeen jabetzakoak direnak, baldin eta defentsari, hiritarren babesari eta hezkuntzako eta presondegi-tako zerbitzuei zuzenean lotuta badaude.
- Unibertsitate publikoen jabetzakoak, hezkuntza-zerbitzuei zuzenean atxikita badaude.
- Errepideak, bideak eta lurteko gainerako bideak, baldin eta aprobetxamendu publikoak eta doakoak badira.
- Kuadrilla, udal-erri, ermandade eta administrazio batzarren jabetzakoak, baldin eta zerbitzu edo erabilera publikoak badira. Aurretik xedatutakoa ez da aplikatuko ondasunak edo hauek atxikita dauden zerbitzu publikoak administrazio emakida batean badaude edo zeharkako beste modu baten bitartez kudeatzen badira, kasu honetan izan ezik: titularrak irabazteko asmorik gabeko

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

elkartea bada eta aipatutako erakundearekin lankidetzak jarduerak egiten baditu, hain zuzen ere, haren organo eskudunak udal interesekotzat jo dituen lankidetzak jarduerak.

Halaber, salbuespena daude komunitateak aprobetxatzen dituen mendiak eta gainerako ondasun higiezin guztiak, bai eta herri basoak ere.

e) Hazkunde geldoa duten espezieez populatutako mendiak, publikoak zein pribatuak.

Salbuespen hau hazkunde geldoko baso espezieei dagokie (Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren izendegiari jarraikiz), hain zuzen ere, nagusiki zuretarako aprobetxatzen direnei, eta espezie horiekin landatutako baso sailei bakarrik, baldin eta zuhaitzendentsitatea espeziearen berezkoa bada.

Orobat, aurreko paragrafoan aipatzen ez diren mendietako batzuk ere salbuespenean sartzen dira, hain zuzen ere, korporazioek, erakundeek eta partikularrek basoberritutakoak, eta Baso Administrazioak onartutako antolamendu proiektuen edo plan teknikoaren arabera birsortzen ari diren zuhaitziak dauden eremuak ere bai. Paragrafo honetan ezartzen den salbuespenak hamabost urte iraungo du, eskaera aurkeztu eta ondoko zergalditik aurrera.

f) Eliza Katolikoaren ondasunak, 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz Estatuak eta Vatikanok sinatutako akordioan ezarritakoaren arabera.

g) Legez onartutako Eliza Katolikoak beste elkarte konfesional batzuen ondasun higiezinak, Espainiako Konstituzioko 16. artikuluan ezarritakoaren ondorioz sinatutako lankidetzahitzarmenetan ezartzen denaren arabera.

h) Gurutze Gorriaren ondasunak eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuenak.

i) Indarrean diren nazioarteko hitzarmenen ondorioz salbuespena aplikatzen zaien ondasun higiezinak, eta atzerriko gobernuenak, diplomaziako, kontsulatuko edota erakunde ofizialen ordezkartzarako erabiltzen dituztenak, elkarrekikotasuna egonez gero.

j) Trenbideek okupatutako lurra eta lur horietan dauden eraikinak, haiek gettokitarako, biltokitarako edo trenbideok ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Ondorioz, ez dira salbuespena zerga ordaindu behar izatetik ez ostalaritza, ikuskizun, merkataritza eta aisialdi establezimenduak, ez enplegatuen etxebizitzarako erabiltzen diren etxeak, ez eta zuzendaritzaren bulegoak edo industria instalazioak ere.

k) Uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultur ondarearenak, 2.2.a) artikuluan ezartzen duenaren arabera monumentu izendapena duten higiezinak. Salbuespen hau inbentariatutako zein kalifikatutako kultura ondasunei aplikatuko zaie, baldin eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, salbuespena daude monumentu multzo baten osagai diren ondasun higiezinak, uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultura ondarearenak, 2. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran xedatzen duenaren arabera. Salbuespen hori soilik aplikatuko zaie higiezin kalifikatu zein inbentariatuak,

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

uztailaren 3ko 7/1990 Legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte eta babes bereziko araubidean badaude.

l) Erabat nahiz hein batean hezkuntza itunaren araubidean dauden ikastetxeek irakaskuntzarako erabiltzen dituzten ondasun higiezinak, hain zuzen ere irakaskuntza hitzarturako erabiltzen den azalera.

m) Salbuetsita egongo dira landa eta hiri ondasun higiezinak, horien kuota likidoa 0,01 euro baino gehiago ez denean.

n) Irabazteko xederik gabeko entitateenak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, ezartzen duenarekin bat etorritik eta bertako baldintzak betez gero. Ez zaie salbuespena aplikatuko sozietateen gaineko zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei.

#### IV. SUBJEKTU PASIBOA

##### 6. artikulua

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluan zehazten diren pertsona naturalak zein juridikoak eta erakundeak dira subjektu pasibo, zergadunak diren neurrian, baldin eta zerga gaia den eskubide baten titular badira.

Ondasun higiezin baten gainean kontzesiodun bat baino gehiago egonez gero, kanonik handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu egin behar da, hargatik eragotzi gabe subjektu pasiboak zerga karga beste batzuei jasanarazi ahal izatea zuzenbide erkidearen arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan ez arren haren herri erabilerako edo ondareko ondasunak kontraprestazio baten trukean erabiltzen dituztenei.

Era berean, zergadunaren ordezkariak gainerako kontzesiodunei jasanarazi ahal izango die dagokien kuota zatia, bakoitzak ordaindu beharreko kanonaren arabera.

#### V. ZERGA OINARRIA

##### 7. artikulua

1. Zerga honen oinarria da ondasun higiezinaren balioa.

2. Zerga oinarria zehazteko, ondasun higiezinaren balioa katastro balioa hartuko da; katastro balioa ondasun higiezinaren merkatu balioa erreferentziatzen hartuta finkatuko da, eta ezin da izan merkatu balioa baino gehiago.

##### 8. artikulua

1. Hiri ondasun higiezinaren katastro balioa lurzorua baliok eta eraikuntzenak osatuko dute.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

2. Lurzorua balioa kalkulatzeko kontuan eduki behar dira eragiten dioten hirigintzako inguruabarrak.

3. Eraikinen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako baldintzak kontuan hartzeaz gain, haien izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, kalitatea eta antzintasuna hartuko dira kontuan, bai eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore ere.

#### 9. artikulua

1. Landa lurreko ondasunen katastro balioa luraren balioak eta eraikinenak osatuko dute.

2. Landa lurren balioa kalkulatzeko, haien benetako errentak edo luraren emankortasunaren arabera sor ditzakeen eta dauden soro edo aprobetxamenduak kapitalizatuko dira, araz ezartzen den korritu tasa aplikatuz, beren katastro ezaugarrien arabera.

Errentak kalkulatzeko, aintzat hartu ahal izango dira ikerketaz lortutako datuak, zona edo eskualde bakoitzean egonik nekazaritza ezaugarri homogeenak dituzten errentamendu edo apartzerien gainekoak.

Gainera, idatz zati honen ondorioetarako kontuan hartuko dira landa lurretan egindako hobekuntzak, haien balioaren osagai banaezinak direnak, eta, behar den kasuetan, ekoizten hasi arte pasatutako urteen kopurua ere bai. Basogintzarako erabiltzen diren landa lurren balioa kalkulatzeko kontuan hartu behar dira zuhaitz berrien adina, zuhaitzen egoera eta aprobetxamenduaren zikloa.

Nolanahi ere, kontuan hartuko da aprobetxamendua handiagoa izateko ohiko produkzio bitartekoak erabiltzea edo aplikatzea; ez, ordea, aparteko bitartekoen aplikazioa.

Hala ere, ustategiaren izaera edo udalerraren ezaugarriak direla-eta zaila bada jakitea zenbaterakoak diren lurren benetako errentak edo errenta potentzialak, ondasunen katastro balioa kalkulatzeko (hobekuntza iraunkorrak eta baso berriak barne), kontuan hartu ahal izango dira nekazaritzako faktore tekniko eta ekonomikoak eta eragiten dieten bestelako inguruabarrak.

3. Landa eraikuntzen balioa aurreko artikuluan 3. idatz zatian jasotako arauak aplikatuz kalkulatu da, eraikuntzen izaerak hori ahalbidetzen duen neurrian.

#### 10. artikulua

Aipatutako katastro balioak higiezin katastroetan bildutako datuetan oinarrituta finkatuko dira. Kasuen arabera, katastro balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira, 12., 13., eta 14. artikuluetan, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.

#### 11. artikulua

Landa eta hiri ondasun higiezin katastroak dira landa eta hiri ondasun higiezin datu eta deskribzioen multzoa: azalera, kokalekua, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak. Datu horiek lurren jabetza ezagutarazten dute, eta haien alderdi eta aplikazioak definitzen dituzte.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

#### 12. artikulua

1. Katastro balioak 8. eta 9. artikuluetan arautzen diren balorazio irizpideen arabera finkatuko dira.
2. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak hiri lurzorua mugatuko du alde zurretik, indarrean dauden hirigintzako xedapenekin bat etorritik. Dena dela, lurzoruaren izaeran aldaketarik egon ez den udalerrietan ez da beharrezko izango mugaketa berri hori egitea.
3. Aurreko paragrafoan aipatzen diren lurzoruaren mugaketa lanak egin ondoren, behar izanez gero, Arabako Foru Aldundiak bidezko balio txostenak egingo ditu. Txosten horietan katastro balioak finkatzeko aplikatu behar diren irizpideak, balorazio taulak eta gainerako elementuak zehaztuko dira.
4. Hiri lurzoruaren mugaketa onartu ondoren, jendaurrean jarriko da 15 eguneko interesduneko egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Testua udal bulegoetan egongo da ikusgai, eta ALHAOn eta Arabako lurraldean zabalkunderik handiena duten egunkarietan argitaratuko da.
5. Onartutako balio txostenak ALHAOn argitaratuko dira eta udalaren ediktuen bidez jakinaraziko dira, txostenen ondoriozko katastro balioek ondorioak sortu behar dituzten urtearen aurreko urtean.
6. Txostenak argitaratu eta gero, haien ondoriozko katastro balioen subjektu pasibo guztiei jakinaraziko zaizkie, banan-banan edo subjektu pasiboa edo baimena daukan pertsona bulegora joanik, balioek eragina sortu behar duten urtearen aurreko urtea amaitu baino lehen.
7. Finkatutako katastro balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

#### 13. artikulua

1. Katastro balioak Arabako Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizioz edo Udalak eskatuta, hirigintza planeamenduak edo beste inguruabar batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela udalerriri osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren katastro balioen eta merkatu balioen artean.
2. Aldaketa hori egiteko txosten berriak prestatu beharko dira, ezinbestean, eta prestatu ere aurreko artikuluan adierazi den bezala. Ez da egongo hiri lurrak berriz mugatu beharrik.
3. Balioespen txostenak prestatutakoan aurreko artikuluan arautzen diren izapideei eta prozedurei ekingo zaie.

#### 14. artikulua

Aipatu katastro balioak Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera eguneratu ahal izango dira.



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## VI. ZERGA KUOTA

### 15. artikulua

1. Zerga oinarriari karga tasa aplikatuz ateratzen da zerga honen kuota osoa.

Kuota likidoa kalkulatzeko lege ezarritako hobarien zenbatekoa kendu behar da kuota osotik.

2. Karga tasa eranskinean jasota dago.

## VII. HOBARIAK

### 16. artikulua

1. Zerga kuotaren ehuneko 95eko hobaria izango dute landaketa edo basoa babestutako natura inguruetan duten landa lurrek.

2. Urbanizatzeko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede osatzen duten ondasun higiezinak, obra berriek nahiz haren pareko diren birgaitzekoek ehuneko 90eko hobaria izango dute, baldin eta interesatuek hala eskatzen badute obrak hasi aurretik, eta haren ondasun higiezinaren ondasunetan azaltzen ez badira.

Hobari hau aplikatzeko aldia lanak hasten diren zergaldiaren hurrengotik lanak amaitu ondoko zergaldira arte izango da, baldintza hau betez gero: aldi horretan urbanizazio edo eraikuntza lanak egin behar dira. Aplikazioaldia inolaz ere ez da izango hiru zergaldi baino luzeagoa.

Baldin eta interesatu batek bere lursailak urbanizatzeko obregatik hobaria aplikaturik lursail horietako higiezinaren sustapenari ekiten badio, hobaria bost zergalditan aplikatu ahal izango du.

3. Zergaren kuotan ehuneko 50eko hobarirako eskubidea izango dute babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte etxebizitzek, behin betiko kalifikazioa eman ondorengo hiru zergaldietan. Hobari hori interesdunak eskatuta emango da. Irauten duen hiru zergaldiak amaitu baino lehen aplikatu ahal izango da, noiznahi. Aplikatuz gero, eskatzen den zergaldiaren hurrengoan sortuko ditu ondorioak.

4. Nekazaritzako kooperatibek eta lurren baterako ustiapenerako kooperatibek hobaria aplika dezakete landa ondasunen kuotetan, ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak, kooperatiben zerga araubideari buruzkoak, ezartzen duenarekin bat etorriz.

5. Subjektu pasiboek, familia ugari titullarrak direnean, ehuneko 25eko hobaria izateko eskubidea izango dute familia ugaria izaten jarraitzen den bitartean, hiri ondasun higiezinaren gainean, baldin eta ohiko etxebizitza bada.

Hobaria eskuratzeko eskaera aurkeztu beharko da, hobaria eskatzen den ekitaldiari dagokion erroldaren jendaurreko erakustaldia amaitu baino lehen.

6. Zerga honen subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzara bideratutako ondasun higiezinak, A motako eraginkortasun energetikoko etiketa badute, ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta ehuneko 25eko hobaria B motakoetan.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du ziurtagiri energetikoa lortzea.

Hobari horiek baliatzeko epea hiru urtekoa da.

### VIII. SORTZAPENA

#### 17. artikulua

- Zerga urtero sortzen da, urtarrilaren 1ean.
- Zergapeko ondasunetan sortutako aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen, aldaketa horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dituzte ondorioak. Dagozkion administrazio egintzak jakinarazteak ez ditu ondorio horiek baldintzatuko.

#### 18. artikulua

- Zerga gai diren eskubideen titulartasuna aldatzen bada dena delako arrazoiagatik, eskubideen xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaintzera lotuta egongo dira, zergei buruzko Foru Arau Orokorren 41. artikuluan ezarritako moduan.  
  
Horretarako, notarioek informazioa eskatuko dute eta bertaratuei eskualdatzen den higiezinari lotutako higiezin ondasunen gaineko zerga dela-eta dituzten zerga zorren berri emango diete.
- Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen diren entitateetako partaideak edo titularkideak zerga kuotaren erantzule solidarioak izango dira, bakoitza bere partaidetzaren arabera, higiezinaren katastroan hala inskribatuta badaude. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna hainbana eskatuko zaie.

### IX. ZERGAREN KUDEAKETA.

#### 19. artikulua

Zerga kudeatzeko errolda egingo da urtero. Bertan ondasun higiezinak, subjektu pasiboen eta katastro balioen zentsuak egingo dira, landa lurrenak eta hiri lurrenak bereizita. Errolda hori udaletxean egongo da jendaurrean.

#### 20. artikulua

- Subjektu pasiboek, zergaren peko ondasunak zein udalerritan dauden, hantxe aurkeztu beharko dute ondasun horiei buruzko aitortpena, erregelamenduz ezarritako epean:
  - Eraikuntza berrien kasuan, alta aitortpena egin beharko dute.
  - Zerga honen kargapean dagoen ondasun eskualdaketa bat gertatzen denean, eskuratzailak alta aitortpena aurkeztu behar du eskualdaketa eragiten duen agiriarekin batera; eskualdatzailak, berriz, baja aitortpena aurkeztu behar du, eta bertan datu hauek adierazi behar ditu:

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

eskuratzailearen izena eta helbidea, ondasunen mugak eta kokalekua, eskualdaketa data eta kontzeptua.

Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren batek eragiten badu, dagokion epea Oinordetzen gaineko Zerga likidatzen den egunetik hasiko da zenbatzen, eta oinordekoak alta eta baja aitoren egin beharko ditu.

c) Zergapeko ondasunei dagozkien aldaketa guztiak, kausa fisiko, ekonomiko zein juridikoak direla medio sortuak.

Idatz zati honetan zerrendatutako aitoren guztiak ez aurkeztea edo epe barruan ez aurkeztea zerga hauste arina izango da.

#### 21. artikulua

Katastro berrikuspenak direla eta, edo katastroko balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea dela eta, edo ikuskapenak edo altak eta komunikazioak direla eta higiezin katastroetan datuak sartu, kendu edo aldatzen badira, hori administrazio egintza dela joko da, eta zergaren erroldan aldaketa egin beharra ekarriko du. Erroldan aldaketaren bat egin ahal izateko, higiezin katastroetan dauden datuekin lotuta badago, aldaketa bera egin beharko da higiezin katastroetan, nahitaez eta aldezturik.

#### 22. artikulua

1. Udalak du zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmena, borondatezko epealdian zein premiamendu aldirian, baldin eta zergapeko ondasunak bere udalerrian badaude, baina hori ez da eragozpen izango 3. paragrafoan ezarritakoa betetzeko.

2. Hain zuzen ere, Udalaren egitekoak dira altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea zerga honen inguruko gaiez.

3. Foru Aldundiari ez beste inori dagokio lurzoruaren mugaketak eta balorazio txostenak egin eta onartzea, eta orobat mugaketa horiek eta katastro balioak finkatu, berrikusi eta aldatzea, eta katastroei eta zergaren erroldari dagozkien prestatze, berrikuste, artatze eta gainerako eginkizunak.

Udalak katastroa prestatzen eta kontserbatzen lagunduko dio Foru Aldundiari.

Era berean, Foru Aldundiari dagozkio ordainagiriak egitea eta zergaren katastro ikuskatzea egitea.

Ordenantza honetako 5. artikuluan zerrendatutako salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko, ezinbestekoa izango da Foru Aldundiaren txosten teknikoa izatea, eta ondoren, Foru Aldundiari berari ematea hartutako erabakiaren berri.

#### 23. artikulua

Lurzoruaren mugaketa onartzekegintzen, balioeztapen txostenen eta katastro balioen aurka errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezteko, zergei buruzko Foru Arauan xedatutakoari jarraitu beharko zaio, eta Foru Aldundiak izango du eskumena errekurtsio eta erreklamazio horiek

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

ebazteko. Horrelako errekurso edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

**24. artikulua**

- Foru Aldundiak egingo du errolda, eta udalari igorriko dio.
- Udalak errolda jaso eta gero, jendaurrean jarriko du 15 eguneko epean, zergadunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzatjotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.
- Udalerrria baino lurralde eremu txikiagoko erakundeak dauzkaten udalek horien lehendakariei gutxienez bi egun lehenago jakinaraziko diete iragarkia noiz jarriko den jendaurrean, haiek auzokideei jakinarazteko, ohiko bideetatik.

**25. artikulua**

- Jendaurrean jartzeko epea amaitutakoan eta erreklamazioak ebatzi ostean, Foru Aldundiari emaitzaren egiaztagiria bidaliko zaio, onar dezan.
- Egiaztagiria onartu eta gero, Foru Aldundiak dagozkion ordainagiriak egingo ditu, eta udalari bidaliko dizkio, azken horrek dirubilketari ekin diezaion.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako eta estatu espainiarrak eta Vatikanoak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoetarako buruz egindako akordioak indarrean dirauen bitartean, ondasun hauek salbuetsita egongo dira:

- Kultuleku modura erabiltzen diren tenpluak eta kaperak, eta haien bulegoak eta jarduera pastoralerako erabiltzen diren eraikin erantsiak ere bai.
- Gotzain, kalonje eta arimen ardura duten apaizen egoitza.
- Bulegoetarako, kuria diozesiarerako eta parrokia bulegoetarako erabilitako lokalak.
- Klero diozesiar eta erlijiosoaren prestakuntzara zuzendutako apaizgaitegiak, eta elizaren unibertsitateak ere bai, elizaren berezko gaiak irakasten dituzten heinean.
- Beren helburu nagusia ordenetako, erlijiosoaren kongregazioetako eta biziera sagaratuko institutu etxe edo komentu izatea duten eraikinak.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK****Lehenengoa.**

42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, xedapen gehigarrietan ezarritako arauak udalerrri honetan aplikatuko dira, haiek eragiten dioten heinean.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

**Bigarrena.**

Martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua, toki ogasunak aldatzen dituen, indarrean jartzeko garaian ondasun higiezin gaineko zergan aitortuta zeuden onura fiskalek, horietaz gozatzeko suposamenduak hartan jasota baldin badaude, iraun egingo dute eta, eskatu beharrekoak izanez gero, ez da beharrezkoa izango eskaera egitea. Aipatutako zergan onartuta dauden zerga hobariei bukatu arte eutsiko zaie, nahiz eta zerga ordenantza honetan jaso ez. Horretatik kanpo geratuko da uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 4. artikuluko k) idatz zatian xedatutakoa, baldin eta 12/2003 Foru Arauaren aurreko idazketa hartzen bada aintzat, zeren eta azken hori indarrean jartzean aurrekoa indargabetu egin baitzen.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, bere eranskinarekin, 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzeaerabakitzen den arte.

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

### ERANSKINA. TARIFAK

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko irailaren 29ko 2/2021 Foru Arauaren 14.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, honako karga-tasa hauek aplikatuko dira:

Hiri-ondasunak:

EKITALDIA	HIRI-ONDASUNAK
2025	0,22%
2026	0,23%
2027	0,24%
2028	0,25%
2029	0,26%
2030	0,27%
2031	0,29%
2032 eta hurrengoak	0,30%

Landa-ondasunak: ehuneko 0,35

Ezaugarri bereziko ondasunak:

- Presak, ur-jauziak eta urtegiak, horien ohantzea edo edalontzia barne, ureztatzeko baino ez direnak izan ezik: ehuneko 1,30.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## **TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributu honi buruzko foru arauan ezarritakoarekin bat etorriz, ordenantza honen arabera eskatzen du trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, zeinaren parte baita aplikatzeko tarifen taula daukan eranskina.

#### **2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGA EGITATEA**

#### **3. artikulua**

Honako hau da zergapeko egitatea:

1. Bide publikoan ibiltzeko gai diren eta trakzio mekanikoa duten ibilgailuen titularitatea, edozein mota eta kategoriatakoa dela ere, zirkulazio baimenean zehazten den helbidea udalerrri honi dagokionean.

2. Ibilgailua zirkulaziorako gai da baldin eta dagozkion erregistro publikoetan matrikulatuta badago, eta baja eman gabe. Zerga honen ondorioetarako, aldi baterako baimena duten ibilgailuak eta turismo matrikula dutenak ere zirkulatzeko erabilgarritzat joko dira.

3. Ondokoak ez daude zerga honen kargapean:

a) Antzinako modeloa izanik erregistroetan baja emanda dauden ibilgailuak, baldin eta, salbuespen gisa, horrelako autoen erakustaldi, txapelketa edo lasterketa mugatueta ibiltzeko baimena eman bazaie.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek tiratutako atoiak eta erdiatoiak, 750 kg-arterainoko zama erabilgarria dutenak.

### **III. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

#### **4. artikulua**

1. Zerga honetatik salbuetsita egongo dira:

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Arabako Foru Aldundiaren eta udal eta toki erakundeen ibilgailuak, defentsara edo herritarren babesera atxikitakoak.

b) Beste herrialde batzuetako ordezkari diplomatikoen, kontsul bulegoetako kideen, agente diplomatikoen eta kontsul funtzionarioen ibilgailuak, baldin eta herrialdeko herritarrak badira eta ibilgailua kanpoaldean identifikatuta badago, eta elkarrekiko salbuespena badago, hedapen eta maila berekoa.

Era berean, Espainian egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak, bai eta bertako funtzionarioen edo estatutu diplomatikoa duten kideen ibilgailuak ere.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dauden ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntzako ibilgailuak, eta zaurituak edo gaixoak garraiatzeko erabiltzen direnak.

e) Mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako ibilgailuen araudi orokorraren II. eranskineko A leturan adierazitakoak, baldin eta ezindu baten izenean matrikulatuta badaude.

Gainera, salbuetsita daude ezinduen izenean matrikulatutako 14 zaldi fiskaletik beherako ibilgailuak, haiek bakarrik erabiltzeko badira. Salbuespen hau egoerak irauten duen artean aplikatuko da, bai ezinduek gidatutako ibilgailuen kasuan, bai ezinduak eramateko ibilgailuen kasuan.

Aurreko bi paragrafoetan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hots, onuradun bakoitzari bat baizik ezin zaio aplikatu, ibilgailu bat baino gehiago eduki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako hauexek hartuko dira ezindutzat:

a) Ehuneko 33 eta ehuneko 65 bitarteko minusbalioetasun gradua aitortua duten pertsonak, mugitzeko gaitasuna murriztuta dutenak. Halakotzat joko dira Ezintasun gradua aitortu, deklaratu edo kalifikatzeko prozedurari buruzko Errege Dekretuak (1971/1999 Errege Dekretua, abenduaren 23koa) III. Eranskinean jasotzen duen baremoko A, B edo C letretan adierazitako egoeretako batean daudenak edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen dutenak.

b) Ehuneko 65eko edo gehiagoko minusbalioetasuna duten pertsonak.

f) Hiriko garraio publikoko zerbitzurako edo hari atxikitako autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, baldin eta bederatzi leku baino gehiago badauzkate, gidariarena barne.

g) Nekazaritzako ikuskatze txartela duten traktore, atoi, erdiatoi eta makinak.

h) Trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zerga kuotaren, gehienez, ehuneko 25eko hobaria aplikatuko da, bost eserleku baino gehiago dituzten autoak, baldin eta auto horren jabea familia ugari bateko kidea bada. Hobaria jasotzeko eskaera aurkeztu beharko da hobaria eskatzen deneko ekitaldiko ibilgailuen errolda jendaurrean egongo den epea bukatu aurretik.



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

i) Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotaren 100eko 100eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoentzat edo gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenentzat, horiek fabrikatzen direnetik zenbatzen hasita. Hura ezagutzen ez bada, lehen matrikulaziokoa hartuko da halakotzat, edo, bestela, dagokion mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaien data. Hobari hori erregutu egingo da, eta hobariaren onuradun izateko baldintza hauek bete beharko dira:

1. Ibilgailuen titular nagusia hobariaren onuraduna izatea.
2. Ibilgailu klasikoak, zaharrak edo historikoak deitutakoak sustatzea edo kontserbatzea helburu duen klub edo elkarte bateko kide dela egiaztatzea onuradunak.

j) Zero isuriko ibilgailuek zergaren kuotaren % 90eko hobaria izango dute matrikulatzen direnetik lehen bost urteetan: bateria-ibilgailu elektrikoak (BEV), autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoak (REEV), ibilgailu elektriko hibrido entxufagarria (PHEV).

Zergaren kuotaren % 50eko hobaria izango dute, lehenengo bost urteetan, ECO etiketa duten ibilgailuek: 40 km-tik beherako autonomia duten ibilgailu hibrido entxufagarriak, ibilgailu hibrido ez-entxufagarriak (HEV), gas natural bidez propulsatutako ibilgailuak (GNC eta GNL) edo petrolioaren gas likidotua (GLP).

Familia ugarietako % 10 gehituko zaie hobaria, ibilgailu zero emisioa edo ECO etiketa dutenean.

2. Artikulu honetako e) eta g) idatz-zatietan aipatutako salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesdunek baimena emateko eskatu beharko dute, ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoiak adierazita. Udal administrazioak salbuespena deklaratu ondoren, emakida egiaztatzen duen agiri bat egingo da.

Artikulu honetako 1. paragrafoko e) idatz-zatiko bigarren lerrokadan aurreikusitako salbuespenari dagokionez, interesdunak ezintasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko du, bai eta, hala badagokio, mugikortasun murriztuaren gabezia-egoeraren ziurtagiria ere, eskumena duen organoak emana, eta ibilgailuaren xedea justifikatu beharko du ezarpenaren udalean, dagokion ordenantza fiskalean ezarritako baldintzetan.

#### IV. SUBJEKTU PASIBOAK

##### 5. artikulua

Zerga honen subjektu pasibo dira zirkulazio baimenean ibilgailuaren titular gisa ageri diren pertsona fisiko edo juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen diren entitateak.

#### V. KUOTA

##### 6. artikulua

1. Eranskinean jasota dagoen tarifen taularen arabera eskatuko da zerga.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

2. Ibilgailu mota zehazteko, arautegietan ezarritakoa hartuko da kontuan; arau hauek ere kontuan izango dira:

a) Ibilgailu bat furgoneta izango da baldin eta turismo ibilgailu bat pertsonak eta gauzak eramateko garraio mistorako egokitzen bada, dela plazak eta beirak kenduz, dela ateen tamaina edo kokapena aldatuz edo ibilgailuaren jatorrizko modeloa funtseanaldatzen ez duten aldaketak eginez. Furgonetek, potentzia fiskalaren arabera, turismoen zergak ordainduko dituzte, kasu hauetan izan ezik:

Lehenengoa. Ibilgailua bederatzipertsona baino gehiago eramateko prestatuta badago, gidaria barne, autobus gisa kargatuko da.

Bigarrena. Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, kamioiari dagokion zerga ezarriko zaio.

b) Zerga honen ondorioetarako, motogurdiak motozikletatzat hartuko dira, eta, beraz, zilindradaren arabera ordainduko dituzte zergak.

c) Ibilgailu artikulatuei dagokienez, trakzioa duen zatiak eta hark tiratutako atoiak edo erdiatoiak, biek aldi berean eta bakoitzak bere aldetik ordainduko dituzte zergak.

d) Ziklomotor, atoi eta erdiatoin kasuan, beren edukiera dela-eta matrikulatzera behartuta ez badaude, zirkulaziorako egokitzen joko dira Industria Ordezkaritzak dagokion ziurtagiria ematen duen unetik beretik, edo, hala badagokio, benetan zirkulazioan dauden garaian.

e) Makina autopropultsatuek, trakzio mekanikoko beste ibilgailu batzuek tiratu beharrik gabe bide publikoetan ibil daitezkeenek, traktoreen tarifen arabera ordainduko dute zerga.

f) Betiere, tarifen D) idatz zatian azaltzen den "traktore" izendapen orokorraren barruan sartzen dira traktokamioiak eta "obra eta zerbitzuetarako traktoreak".

g) Ibilgailuaren potentzia fiskala, zaldi fiskaletan emana, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren 11.20 artikuluan testu beraren V. eranskinarekin loturik xedatutakoaren arabera finkatuko da. Dekretu horren bidez onartu zen Ibilgailuen Araudi Orokorra.

## VI. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

### 7. artikulua

1. Zergaldia urte naturala izango da, ibilgailua lehenengoz eskuratzen denean edo baja ematen zaionean izan ezik. Kasu horietan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean bertan hasiko da, edo trafiko buruzagitzan baja ematen den egunean amaitu.

2. Sortzapena zergaldiko lehen egunean gertatuko da.

3. Ibilgailu bat lehen aldiz eskuratzen bada, zergaren kuota ibilgailuaren eskuratze egunetik abenduaren 31ra arteko aldiaren proportziozkoa izango da, edo eskuratze egunetik baja datara arteko aldiaren proportziozkoa, hala badagokio.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

4. Ibilgailu bati baja ematen zaionean, zergaren kuota urtarrilaren 1etik Trafiko Buruzagitzan baja eman arteko aldiaren proportziozkoa izango da.

## VII. KUDEAKETA

### 8. artikulua

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean agertzen den herriko udalari dagokio kudeaketa, likidazioa, ikuskatzea eta bilketa, bai eta zerga kudeaketako bidean emandako egintzak berrikustea ere.

### 9. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

### 10. artikulua

Udal administrazioak emandako ordainagiriaren bitartez egiaztatuko da zerga ordaindu izana.

### 11. artikulua

Ekitaldi bakoitzeko lehenengo hiru hilabeteetan ordainduko da zerga, hurrengo artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik, zeinetan artikulua horretan xedatutakoa aplikatuko baita.

### 12. artikulua

Matrikulazioa berria bada, edo zergen ondorioetarako ibilgailuaren sailkapena aldatzen duen bestelako aldaketaren bat egiten bada, interesdunek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte udal administrazioan, zergaren matrikulazio sartzeko, matrikulatu edo aldaketa egin eta 30 egun balioduneko epean:

- Zirkulazioko baimena.
- Ezaugarri teknikoaren ziurtagiria.
- NAN edo IFK.

### 13. artikulua

1. Trafiko buruzagitzan matrikulazioa eskatzen dutenek, hau da, zirkulatzeko gaitasun agiria, alde aurretik egiaztatatu beharko dute zerga ordaindu izana.

2. Ibilgailuen titularrek trafiko buruzagitzari alde aurretik frogatu beharko diote aurkeztu zaien azken ordainagiria ordaindu dutela, kasu hauetan: ibilgailuak eraberritu badituzte, zergaren ondorioetarako sailkapena aldatzeko moduan; ibilgailua eskualdatzen badute; ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den egoitza aldatzen badute; edo ibilgailuari baja ematen badiote. Hala badagokio, kudeaketaren eta ikuskatzearen bidez, kontzeptu horrengatik sortutako, likidatutako, kobratzeko aurkeztutako eta preskribatu gabeko zor guztiak ordaintzeko eskatu ahal izango zaie. Hamabost urte edo gehiago dituen ibilgailu bati behin betiko baja emanaz gero, ez dago aipatutakoa frogatu beharrik.

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

3. Trafiko buruzagitzak ez ditu izapidetuko ibilgailuen baja edo transferentzia espedienteak, aldez aurretik zerga ordaindu dela frogatzen ez bada.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau eta bere eranskina bertan adierazitako egunean onartu ziren behin betiko, 2025ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo dira indarrean eta horrela jarraituko dute harik eta aldatzea edo baliogabetzeaerabakitzen den arte.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## ERANSKINA. TARIFAK

Potentzia eta ibilgailu mota	Kuota eurotan
<b>A) Turismoak:</b>	
8 zaldi fiskal baino gutxiago	16,36 €
8 eta 11,99 zaldi fiskal bitartean	44,17 €
12 eta 15,99 zaldi fiskal bitartean	93,26 €
16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartean	116,17 €
20 zaldi fiskal baino gehiago	145,20 €
<b>B) Autobusak:</b>	
21 plaza baino gutxiago	107,99 €
21 eta 50 plaza bitartean	153,80 €
50 plaza baino gehiago	192,25 €
<b>C) Kamioiak:</b>	
1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria	54,81 €
1.000 - 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	107,99 €
2.999 kg - 9.999 kg bitarteko karga erabilgarria	153,80 €
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	192,24 €
<b>D) Traktoreak:</b>	
16 zaldi fiskal baino gutxiago	22,89 €
16 eta 25 zaldi fiskal bitartean	35,99 €
25 zaldi fiskal baino gehiago	107,99 €
<b>E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek herrestan daramatzaten atoiak eta erdiatoiak:</b>	
1.000 kg baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	22,89 €

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

1.000 kg eta 2.999 kg bitarteko karga erabilgarria	35,99 €
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria	107,99 €
<b>F) Bestelako ibilgailuak:</b>	
Ziklomotorrak	5,72 €
125 cm3 baino gutxiagoko motozikletak	5,72 €
125 eta 250 cm3 bitarteko motozikletak	9,80 €
250 eta 500 cm3 bitarteko motozikletak	19,63 €
500 eta 1000 cm3 bitarteko motozikletak	39,27 €
1.000 cm3 baino gehiagoko motozikletak	78,54 €

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA ARAUTZEN DUEN  
ORDENANTZA FISKALA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituen foru arauan eta zergari buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ezarri eta eskatuko du udalak ordenantza honen arabera. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

**II. ZERGA EGITATEA****3. artikulua**

Honako hauek osatuko dute zerga egitateak: obra edo hirigintza baimena behar edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, baimen hori lortu ala ez, baldin eta udal honi badagokio hori ematea.

**4. artikulua**

Besteak beste, honako hauek daude zergapean:

- Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
- Lehendik dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioak handitzeko obrak.
- Lehendik dagoen edozein eraikin eta instalazioreragiten dioten eraberritze edo aldaketa obrak.
- Lehendik dauden mota guztietako eraikinen eta instalazioen kanpoko itxuraaldatzeko obrak.
- Eraikinen barruko antolaketa aldatzeko obrak, beraien erabilera gorabehera.
- Lurzoruaren Legearen testu bategineko 58. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren eta behin-behinean egitekoak diren obrak.
- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.
- Lur mugimenduak (esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak), baldin eta ez badaude zehaztuta eta programatuta baimendu edo onartutako urbanizazio edo eraikuntza proiektu batean egin beharreko obra gisa.
- Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienena izan ezik.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

10. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

11. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoaren inbertsioa ekarriko dutenak eta obra edo hirigintza baimena lortu beharra dutenak.

#### 5. artikulua

Ez zaie zerga hau aplikatuko higiezinan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

### III. SALBUESPENAK

#### 6. artikulua

Zergatik salbuetsita daude:

- Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie zerga ezarriko baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uretako saneamenduak eraikitzeke badira, organismo autonomoek kudeatzen badituzte ere, inbertsio berriko obrak izan zein mantentzeko izan.

- Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

- Ureztatzeko sistema jartzeko egiten diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatzerako Planaren barruan badaude. Salbuespen hau ureztatzeko sistema ezartzeko zein artatzekoeraikuntzei, instalazioei eta obrei aplikatuko zaie.

- Monumentu izendapena duten ondasun higiezinan egin beharreko eraikuntza, instalazio eta obrak, edo Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. Artikuluko 2. apartatuko a) eta b) letretan aipatutako monumentu multzo batean egin beharrekoak.

### IV. SUBJEKTU PASIBOAK

#### 7. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluko pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta entitateak, baldin eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabeak badira, haiek egiten diren higiezinaren jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen dituenak.



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordezeko subjektu pasibotzat joko dira horietarako baimenak eskatu dituztenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egin dituztenak.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

#### V. ZERGA OINARRIA

##### 8. artikulua

1. Zergaren oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua da; benetako kostuzat burutzapen materialaren kostua joko da.

Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga eta araubide berezietako berezko beste antzeko zerga batzuk, ez eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak ere, ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

#### VI. ZERGA KUOTA

##### 9. artikulua

Zerga honen kuota ateratzen da zerga oinarriari eranskinean zehaztutako karga tasa aplikatuz.

#### VII. HOBARIAK

##### 10. artikulua

1. Zergako kuotaren ehuneko 50eko hoberia izateko eskubidea izango da, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute obrak hasi baino lehenago, ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan.

2. Baita ere, zergako kuotaren ehuneko 50eko hoberia izateko eskubidea izango da eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak barnean dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan.

Hobari hau aplikatzeko ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioan administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak jartzea. Letra honi dagokion hoberia aplikatuko zaie indarrean dauden legeen arabera nahitaezkoak ez diren inbertsioei soilik.

Letra honetan aurreikusitako hoberia aplikatuko zaio, hala badagokio, aurreko 1) puntuan aipatutako hoberia aplikatzearen ondoriozko kuotari.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## VII. SORTZAPENA

### 11. artikulua

Eraikuntza, instalazioa eta obra hasten den garaian sortuko da zerga, artean lortu ez bada ere dagokion obra lizentzia.

## VIII. KUDEAKETA

### 12. artikulua

Aginduzko lizentzia lortzen denean, behin-behineko likidazioa egingo da. Zerga oinarria zehazteko, interesa dutenek aurkeztutako aurrekontua erabiliko da, dagokion elkargoak behar bezala ikus- onetsia; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zein den zerga oinarria, proiekturako kalkulatu den kostuaren arabera.

### 13. artikulua

Behin lizentzia emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren hasierakoari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

### 14. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu erreala eta benetakoa kontuan hartuta, udalak dagokion egiaztapena egingo du, eta, beharrezkoa bada, zerga oinarria aldatuko du, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu, edo, hala badagokio, itzuli egingo dio.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu ondorengo edo obraren behin-behineko onespina eman ondorengo hilean, horren aitorpena aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus- onetsia, bideragarri denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta hortik sortutako gainerako eskubideak barne.

### 15. artikulua

Zergaren likidaziorako, esanbidez emandako baimenen ondorio berdinak izango dituzte administrazioaren isiltasun positiboa aplikatuz emandako baimenek.

### 16. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

**17. artikulua**

Lizentzia baten titularrak bertan behera uzten badu obra, eraikuntza edo instalazioa baimendua, eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak itzuli egingo du behin-behineko likidazioa, edo guztiz baliogabetu.

**18. artikulua**

Lizentzia bat iraungitakoan, udalak itzuli egingo du likidazioa, edo baliogabetu, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatzen badu eta udalak baimena ematen badio.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala jarraituko du indargabetzea edo aldatzea erabakitzen den arte.

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

**ERANSKINA.- TARIFA**

Karga tasa: 4 %.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA  
ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan aurreikusitakoarekin bat etorriz, jarduera ekonomikoaren gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren parte baita eranskina, aplikatzeko tarifak eta dirubilketa egiteko aldia jasotzen dituen.

**2. artikulua**

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzen da.

**II. EGITATE ZERGAGARRIA****3. artikulua**

Zerga gaia da enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa jarduerak izango dira beste jarduera baten mendeko ez den abeltzaintza, meatzeak, industria, merkataritza eta zerbitzuak. Horien artean ez dira sartennekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiek ez dira zerga honen gai.

Aurreko ahapaldian ezartzen denaren ondorioetarako, abeltzaintzalokabetsat joko dira kasu hauetakoren batean dauden abereak:

- Abeltzainak abereak larratzen diren lurrak ez erabiltzeanekazaritzarako ez basogintzarako.
- Landa finketatik kanpo ukuluraturutakoak.
- Transhumantzia dabilena.
- Abereak hazten diren finkakoak ez diren pentsuezelikatzen direnean, batez ere.

**4. artikulua**

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar dituzten ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.

2. Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

#### 5. artikulua

Zergapetutako jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onargarria den edozein bitarteko erabiliko da, eta, bereziki, Merkataritza Kodearen 3. artikuluan jasotakoak.

#### 6. artikulua

Jarduera hauek ez dira zerga gaitzat joko:

1. Nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza.
2. Besterentzea enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak, ibilgetu izaeraz agertu badira inbentarioan gutxienez aldatu baino bi urte lehenagotik, eta saltzeasaltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak, denbora aldi berean erabiliak baditu.
3. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.
4. Erakustea establezimenduak dekoratu edo apaintzeko baino ez diren gaiak. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.
5. Txikizkako salmentan, burutzeaegintza bakar bat eta eragiketa bakan bat.

### III. SALBUESPENAK

#### 7. artikulua

1. Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Estautua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko entitateak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak.

Horri begira, honako hauek ez dira joko jarduera hasi den kasutzat:

- 1) Jarduera lehen beste titulartasun batekin egin bada; halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.
- 2) Subjektu pasiboa sozietate talde bateko kide denean Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberaren; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezein enpresak egin gabea.
- 3) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.
- c) Eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzendirentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, idatz zati honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintzabetetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Idatz zati honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. artikulua 1. paragrafoan ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2. Sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena hauxe izango da: aitorpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergen foru arau orokorrak 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena izango da zerga honengatik zorraren sortzapen urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urtea baino laburragoa bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen bolumena kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomikoaren multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritza Kodearen 42. artikuluar jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte segurantzak, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten entitateak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuak.

e) Ikerketa organismo publikoak; irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, baldin Estatuaren, autonomia erkidegoen, Arabako Foru Aldundiaren edo toki erakundearen funtsen kargura ordaintzen badira osoki, edo ongintzazko edo erabilera publikoko fundazioen kargura; era berean, irabazteko xederik gabe hezkuntza itunaren araubidean dauden irakaskuntza zentroak, maila guztietakoak, nahiz eta ikasleei liburuak eta idazmahaiko gaiak eman, edo pentsio erdiko edo barnetegiko zerbitzuak eskaini, edo, salbuespenez, zentroan bertan saldu irakaskuntza horretarako tailerretako produktuak, betiere salmenta horren zenbatekoa (partikularrentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarria izan gabe) lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua sostengatzeko ez bestetarako baliatzen bada.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sententzialen elkarte eta fundazioak, irabazteko asmorik gabeak, ezinduekin egiten dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerengatik, xede izanik haien irakaskuntza, heziketa, birgaitzea eta zaintza, nahiz eta zentroan bertan saldu helburu horietarako egiten diren tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa,

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea, bideratzen bada soil-soilik lehengaiak eskuratzeraz edo zentroa sostengatzeraz.

g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

h) Nazioarteko ituna edo hitzarmena dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak.

2. Aurreko idatz zatiko a), d), g) eta h) letretan aipatzen diren subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu zergaren matrikularen alta aitortpena.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du aurreko 1. idatz zatiko c) lettran zehaztutako salbuespena aplikatzen den kasuetako zeinetan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari komunikazioa bidaltzeko, hain zuzen ere letra horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazten duen komunikazioa.

Horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du komunikazio horretan zer azaldu behar den, noiz bidali behar den nola aurkeztu behar den, eta zer kasutan aurkeztu behar den bide telematikoz.

Aurreko 1. idatz zatiko c) lettran zehazten den salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, foru arau honetako 13. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren paragrafoan ezartzen denari jarraituko zaio.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoaren e) eta f) idatz zatietan aurreikusitako salbuespenek erregu izaera izango dute eta, hala dagokionean, alde batek eskatuta emango dira.

#### IV. SUBJEKTU PASIBOA ETA ZERGA KUOTA

##### 8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako zergen foru arau orokorrak 35. artikulua 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzten duten jardueretako edozein egiten badute.

##### 9. artikulua

Zerga kuota izango da ateratzen dena aplikatuz indarrean dauden tarifak, uztaileen 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak, eta udalak erabakitako koefizienteak, indizea eta hobariak, ordenantza honen eranskinean arautuak.

#### V. ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

##### 10. artikulua

1. Zergaldia urte naturala da; salbuespena: alta aitortpenetan zergaldia jarduerari ekin zaionetik egutegiko urtea amaitu arte da, artikuluko honetako 3. zenbakian xedatzen dena gorabehera.



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

2. Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta aitortzen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra arteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3. Baja aitortzen zergaldia urtarilaren lehenengotik baja aitortzen aurkezten den egunera arte izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarilaren batetik baja aitortzen den egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren hilen kopurua kalkulatzeko, hil osotzat zenbatuko da baja aitortzen aurkezten den hila.

Kasu honetan ez da aplikatuko zenbaki honetan xedatzen dena: jarduera hasi den egunetik baja aitortzen egin arte 12 hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortzen aurkezten den urteko abenduaren 31 izango da.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuotak jarduketak bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortzen arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

## VI. KUDEAKETA

### 11. artikulua

1. Zerga matrikula oinarritzat hartuta kudeatzen da. Matrikula hori urtero eratu da, eta bertan sartuko dira jarduera ekonomikoaren, subjektu pasiboaren, zerga zorren, eta, hala badagokio, foru errekaraguen zerrendak. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2. Subjektu pasiboek beren alta aitortzen guztiak aurkeztu behar dituzte eta, ordenantza honetako 11.1 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, matrikularen sartzeko behar diren datu guztiak adierazi beharko dituzte arau ezartzen den epealdiaren barruan. Ondoren, administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta gero hark dagokion diru zenbatekoa sartu beharko du. Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epealdietan eta zehazten den bezala. Hori dela eta, jakinarazpenetan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honetako 7. artikuluen 1. paragrafoaren c) idatz zatian ezartzen den salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, eragiketen bolumenaren aldakuntzaren ondorio zerga ordenantza honetako 7. artikuluen 1. paragrafoaren c) idatz zatian ezarritako salbuespenaren aplikazioa aldatzen bada, edo ordenantza honen eranskinean zehaztutako haztapen koefizientearen aplikaziorako kontuan eduki beharreko tarteak, subjektu pasiboek bolumen aldaketaren berri eman beharko du.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren buruak zehaztuko du zer kasutan aurkeztu beharko diren jakinarazpen horiek, eta horien edukia eta aurkezteko epea eta modua, baita ere zer kasutan aurkeztu beharko diren telematika bidez.

3. Zerga ikuskaritzaren edo alden eta berriemateen formalizazioak direla-eta erroldetan datuak sartu edo haietako datuak kendu edo aldatzen direnean, administrazio ekintzatzat joko dira eta errolda aldatzea ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko daturen bat ukitzen badu, lehenbizi ildo bereko aldaketa egin beharko da datu horretan, nahitaez.

4. Zerga hau autolikidazio bidez eskatu ahal izango da; hala bada, arau bidez ezarriko da nola.

#### 12. artikulua

1. Udalari dagozkio zerga hau kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldiari, bai premiamendu bidean.

2. Bere eskumeneko gaitan, Udalari dagokio matrikula jendaurrean jartzea, errekurtsioak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zergadunari laguntza eta informazioa ematea zerga honekin lotutako gaitan.

3. Salbuespenak emateko edo ukatzeko Foru Aldundiaren txosten teknikoa beharko da beti; ebazpena eman ondoren, haren berri jakinarazi beharko zaio Foru Aldundiari.

#### 13. artikulua

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzekoegintzen aurkako errekurtsioei eta erreklamazioei zergen foru arau orokorreko 229 - 246 bitarteko artikuluetan xedatzen dena aplikatuko zaie. Berraztertzeoerrekurtsioak ebatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere egintzaren betearazpena ez da etengo.

#### 14. artikulua

1. Udal bakoitzaren matrikula Arabako Foru Aldundiak prestatuko du, eta ondoren haiei bidaliko.

2. Foru Aldundiak egindako matrikula jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, eragindako zergadunek aztertu eta egokitzatjotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

#### 15. artikulua

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ostean, Arabako Foru Aldundiari bidaliko zaio emaitzaren egiaztagiria, berak onar dezan.

### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eranskinarekin batera, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betiko, 2025eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta hala jarraituko du aldatu edo indargabetzeaerabakitzen den arte. 2024ko urtarrilaren 1ean gertatzen diren sortzapenatarako eta hurrengoetarako izango ditu ondorioak.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

#### ERANSKINA. TARIFAK

**Lehenengo araua.** Zerga kuota (udalaren gutxienekoa) izango da ateratzen dena zerga gaien sartutako jardueri aplikatuz zergaren tarifak, uztailaren 23ko Diputatuen Kontseiluaren 573/1991 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartu eta indarrean daudenak; hala ere, kontuan izan behar da araututa dagoena Toki Ogasunak aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Arauak bigarren xedapen gehigarrian eta xedapen indargabetzailean.

**Bigarren araua.** 3/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, udalerrri horretan egiten diren jarduera guztietarako, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifen gutxieneko kuotak handitu egingo dira, udalerrian egiten diren jarduera guztietarako koefiziente bakarra aplikatuz, ehuneko 1,10ean.

**Hirugarren araua.** Irailaren 29ko 3/2021 Foru Arauaren 10. artikuluekin bat etorritik, udalerrri honetan aplikatzekoa den Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Indizeen eskala honela finkatzen da:

"Udalerrri honetako bide publiko guztiak zerga kategoria berean sailkatzen dira."

**Laugarren erregelak.** Zerga irailaren 15etik azaroaren 15era bitartean bilduko da urtero.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**ZERBITZU PUBLIKOAK EMAN ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ETA  
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua**

Burgeluko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 20. eta 25. artikuluetan, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaian eta uztailearen 13ko 25/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, tasak ezarri eta galdatzen ditu eranskinean jasotzen diren zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, eta horien parte dira.

**2. artikulua**

Ordenantza Burgeluko udalerrri osoan aplikatzen da.

**II. ZERGA EGITATEA****3. artikulua**

1. Zerga egitatea da udal administrazioak subjektu pasiboari bereziki eragiten dion edo onura dakarkion udal eskumeneko zerbitzuren bat eman edo administrazio jardueraren bat egitea, hala eskatu diotelako edo partikularren ekintzek edo ez-egiteek zeharka eragin dutelako.

2. Zerbitzuak ematearen tasa ezarrita ere, horrek ez du esan nahi zerbitzu horiek ezartzeak edo gehitzeak sor litzakeen kontribuzio bereziak ordainarazi beharko ez direnik.

**III. SUBJEKTU PASIBOA****4. artikulua**

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Hauek izango dira zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak:

a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horientzat ordaindu beharreko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.

c) Eraikitzaileak eta obren kontratistak, hirigintzalentzien tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan.

**5. artikulua**

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

- Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatu ez badituzte, baina haiek egin duten edo egin ez duten zerbaitengatik gauzatu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotzi ahal zaien pertsonak.

#### 6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, eranskinean ageri diren tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte ordenantza honen ondoriozko zerga zorrak.

### IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

#### 7. artikulua

Aplikatu beharreko xedapen orokorren eta ordenantza honen eranskinen mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea.

### V. ZERGA OINARRIA

#### 8. artikulua

Zerga oinarria da zerbitzuagauzatzen den unitateetako bakoitza, dagokion tarifaren arabera.

### VI. KUOTA

#### 9. artikulua

Zerga kuota zehazteko, aurreko artikulua ondu ondoriozko oinarriari eranskineko tarifen arabera dagokiona gehituko zaio, tarifa aplikatzeko arauen arabera.

### VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

#### 10. artikulua

1. Tasaren sortzapenaz zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

### VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

#### 11. artikulua

Kontzeptubakoitzarengatik egin beharreko likidazioa Burgeluko udal administrazioak egingo du, eta likidatutakoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako tarifetan dauden arauen arabera.

Dena den, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

#### IX. TASEN KUDEAKETA

##### 12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergeri buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

##### AZKEN XEDAPENA

Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta egun horretatik aurrera egongo da indarrean, edo urteko tasen kasuan, hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera, eta indarrean jarraituko du berariaz aldatu edo indargabetu arte.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## ORDENANTZAREN ERANSKINAK

## 1. ERANSKINA. HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEKO JARDUERAK

## 1. Xedea:

Hona tasaren xedea: eraikuntza jarduerak edo lurraren erabilera egiaztatzeko udalak gauzatu behar dituen egintzak, tekniko edo administratiboak, edota alde zuzenetik udal lizentzia lortu beharra duten jardueren baimenak egiaztatzekoak, hirigintzari buruzko lege eta arauetan, eraikuntza ordenantzetan eta eraikuntzen, obren eta lurraren erabilera alorrean ezar daitezkeen gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera, baldin eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko udal zerga nahitaz ordaindu beharra ez badakar.

## 2. Tarifak:

Hauek izango dira:

A) Obra lizentziak	
Obra lizentziak ematea zehaztutako aplikazio kasuetan, irautze espedienteen ondoren.	EIOZen zenbatekoaren ehuneko 15
B) Partzelazioak, finka banantzeak eta elkartzak, birpartzelatzeak, kontentsazioko eta bestelako proiektuak barne:	
1.000 metro koadro edo gutxiago: (metro karratuko)	0,03 euro
1.000 metro koadro baino gehiago eta 10.000 metro koadroraino: (metro karratuko)	0,02 euro
10.000 metro koadro baino gehiago:(metro karratuko)	0,01 euro
C) Lokalak eta eraikinak ikuskatzea:	
Eskatzen duenaren proposamenez, salaketarik izan gabe	31,10 euro
D) Hirigintza zedulak, ziurtagiriak eta txostenak ematea:	
Hirigintza zedula	31,10 euro
Irizpena eman beharra dakarten ziurtagiriak eta txostenak	31,10 euro

## E) Titulartasun aldaketa.

Aldaketa eragiten duen negozio juridikoak eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 5 ordainduko da.

## F) Lizentzien luzapenak.

Likidatutako eskubideen eta tasen ehuneko 5 ordainduko da (6,01 euro gutxienez). Tasa ofizioz kitatuko da obra egiteko epea bukatutakoan, nahiz eta interesdunak luzapenik eskatu ez, baldin eta hirigintza legeek lizentzialuzatzeaahalbidetzen badute.

## G) Lehenbizikoz okupatzeko lizentziak eta bestelako baimenak.

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergan likidatutako eskubideen ehuneko 2 ordainduko da.

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

**3. Aplikazio arauak:**

- Lizenziaeskutzen den unean sortuko da tasa ordaintzeko beharra edo, nahiz eta ez eskatu, ordenantza honetan azaldutako tarifak ordaindu beharra dakarten egitateak gertatzen direnean.
- Obra eta instalazio lizenziak emateagatiko tasa sortuko da, baldin eta, lizenziaraungitzaletzetan dagokion espedientea amaitu ondoren, interesdunak xede bera edo antzekoa duen beste bat eskatzen badu. Obrek edo instalazioek sortutako EIOZen behin-behineko likidazioaren ehuneko 15 ordainduko da, baldin eta, indarrean dagoen plangintzariegokitzeagatik, lizenzia hori eman badaiteke, eta zuzendu egingo da, baldin eta zergaren behin betiko likidazioa ezberdina bada.



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

## 2. ERANSKINA. IREKIERA ETA JARDUERA LIZENTZIAK EMATEA

### 1. Xedea:

Tasa honen xedea izango da irekiera lizentziak eman baino lehenagoko zerbitzu teknikoak eta administratiiboak ematea edo aurretiazko jakinarazpenetan eta erantzukizunpeko aitortutako betebeharrak egiaztatzea.

### 2. Tarifak:

- Sailkatu gabeko jarduerak, jarduera sinplifikatu edo kaltegabearen aurretiko jakinarazpenarekin: 55 euro.
- Sailkatutako jarduerak, aurretiazko jakinarazpena behar dutenak: 160 euro.
- Sailkatutako jarduerak, jarduera lizentzia behar dutenak:
  - 250 m<sup>2</sup>-raino: 270 euro.
  - 250 m<sup>2</sup> baino gehiago eta 500 m<sup>2</sup>-raino: 585 euro.
  - 500 m<sup>2</sup> baino gehiago: 1.260 euro.

### 3. Aplikazio arauak:

- Tasaren sortzapezalizentzia eskaera aurkezten denean gertatzen da edo, lizentziarik eskatu ezean, ondorengo arauan aipatzen diren inguruabarretako bat gertatzen denean.
- Ordainarazpen honen ondorioetarako, hauek izango dira irekitzekolizentzia lortu beharra duten establezimendu edo instalazioak:
  - Lehen aldiz instalatzea, bai eta merkataritza, industria edo zerbitzuetarakoerabiltzen diren makinak edo beste elementu batzukjartzehutsa ere, nahiz eta berehala ez abiarazi, funtzionatu edo ireki.
  - Lokalez aldatzea.
  - Jardueraz aldatzea, nahiz eta izena, titulartasuna edo lokala berdina izan.
  - Jarduera handitzea; horrelakotzat hartuko da jarduera ekonomikoan gainera zergaren kuota igotzea dakarrena, salbu eta igoyerak zergak aldatu direlako gertatzen badira.
  - Lokalak handitzea.
- Lizentzia eman ondoren establezimenduek jarduera aldatzen badute, egoera hauen arabera likidatuko da tasa:
  - Jarduera berria dela eta jardueren gainera zergan dagokion atala edo dibisioa aldatu behar bada, tarifa orokorrean ezarritakoaren arabera zehaztuko da tasa.
  - Jarduera batek irekitzeko bi lizentzia lortu beharra badu, kopuru handieneko epigrafearen arabera ordainduko da.
- Emateko erabakia hartuta, interesdunek berriaz uko egin ahal izango diote lizentziari. Horrela egitekotan, eskubidea izango dute ordaindutako tasaren ehuneko 80 itzul dakien, edo, hori ordaindu ez badute, likidazioaren ehuneko 20 ordaintzeko, baldin eta lizentzia eman dela jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan uko egiten badiote. Baldin eta 30 egun horiek igarota

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

baina ematearen jakinarazpenaren hurrengo hiru hilabeteren barruan uko egiten badiote, ehuneko 50 itzultzeko edo murrizteko eskubidea izango dute.

5. Lizentzia eman ondoko hiru hilabeteetan establezimendua edo lokala irekitzen ez bada, lizentzia eta harengatik ordaindutako tasa iraungitza joko dira. Gauza bera gertatuko da ireki ondoren berriro ixten bada edo jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emanda badago sei hilabetez, ezinbesteko kasuetan izan ezik, hau da, ezinbesteko arrazoiengatik edo inguruabarrengatik establezimendua edo lokala itxi behar bada edo haren irekiera atzeratu behar bada.

6. Ez zaie kargarik ezarriko lizentzia eskualdaketei, baldin eta indarrean dauden arauetara egokitze kolizentzia emateko prozedura izapidetu beharrik ez badute.

7. Tasa hau autolikidazioaren prozeduraren bidez bildu ahal izango da.

#### 4. Hobariak:

Sortutako tasaren gainean ehuneko 50eko hobaria izango dute irabazteko xederik gabeko erakundeek, irabazteko xederik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan jasotakoaren arabera, baldin eta lokala beren xede edo helburu espezifiko betetz erabiltzen badute ustiaketa ekonomiko baterako.

Zerga onurak aplikatzeko eskaera, interesdunak berriaz egin beharko du, eta harekin batera irabazteko xederik gabeko erakundea dela egiaztatze beharrezkoak diren agiriak aurkeztuko dira.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**3. ERANSKINA. ZABORRAK ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILTZEKO ZERBITZU  
PUBLIKOA****1. Xedea:**

Tasa honen xedea zaborrak biltzeko, garraiatzeko eta baimendutako zabortegetan tratatzeko zerbitzua ematea da, bai udal kudeaketa zuzenaren bidez, bai Aguraingo Kuadrillaren edo kontratista baten bidez.

**2. Tarifak:**

KUOTA	EUROAK
<b>Etxebizitzak</b>	75,00
<b>Hiru izarreko jatetxe eta hotelak</b>	1.893,73
<b>Beheragoko mailetako jatetxe eta hotelak</b>	1.419,37
<b>Zerbitzuguneak, talde alojamenduak etab.</b>	474,37
<b>Bestelako merkataritza establezimenduak</b>	285,00

**3. Aplikazio-arauak:****1. Etxeko zabor-zerbitzua orokorra eta nahitaezkoa da.**

Borondatezkoa da lantegietako eta lantegietako prozesu edo elaborazio industrialen ondoriozko hondakin solidoak, obretako eta eraispenetako obra-hondakinak eta lurrak eta ospitaleetako, kliniketako eta osasun-zentroetako detrituetako hondakinak biltzea, garraiatzea, isurtzea eta ezabatzea.

2. Hondakinak kudeatzeko zerbitzutik kanpo geratzen dira etxeetan tratatutako frakzio organikoak, baldin eta edukiontzi espezifikoak eta konpostagailua edo parekagarria badute, ongarri gisa erabiltzeko tratamendua ahalbidetzeko. Era berean, ez dira kontuan hartuko udalerriko gaikako bilketan aurreikusitako zatiki bakoitzerako (papera eta kartoia, ontzi arinak eta beira) berariazko bilketa-sistemaren bat duten etxeetako zatikiak.

3. Laguntzeko betebeharrak zerbitzua ematean sortzen da. Zerbitzu hori orokorra eta nahitaezkoa denez, haren udal-antolamendua estaltzen duen eremuan dauden etxebizitza, lokal eta establezimenduen titularrek eta erabiltzaileek erabiliko dute.

4. Zerbitzu orokorrak eta nahitaezkoak emateagatik kuotak hainbanaezinak eta murriztezinak dira, eta urte natural bakoitzeko lehenengo egunean sortutakotzat joko dira; hala ere, udalak tasa hori hiru hilean behin edo sei hilean behin kobratu ahal izango du, honako berezitasun hauekin:

a) Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu eta merkataritza- edo industria-jardueretan altak edo bajak gertatzen direnean; kasu horretan, zergaldia alta gertatzen den eguneko hiruhilekoa hasiko da, eta baja gertatzen den eguneko hiruhilekoa amaituko da.

b) Zergaldiaren lehen egunean sortzen da tasa.

c) Merkataritza- edo industria-jardueren altaren kasuan, tasaren kuotaren zenbatekoa izango da altaren lehenengo hiruhilekotik urteko azken hiruhilekora arte (biak barne) dagoen denborari proportzionalki dagokiona.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

d) Jardueretan baja ematen den kasuan, tasaren kuotaren zenbatekoa urteko lehen hiruhilekoaren eta baja gertatzen den hiruhilekoaren arteko denborari dagokiona izango da, biak barne.

e) Etxebizitzak lehen aldiz okupatuz gero, merkataritza- edo industria-jarduerak hasteagatiko alden kasuistika aplikatuko da.

f) Etxebizitzaren titulartasuna aldatzen bada, jabeak eroslearen identifikazio-datuak jakinarazi beharko dizkio Burgeluko Udalari, betiere eroslearen ordezkio gisa.

5. Zerbitzu orokorrak eta derrigorrezkoak emateagatiko tasa jasotzen duten pertsonen udal honetan aurkeztu beharko dituzte alta-, baja- eta aldaketa-deklarazio egokiak, eta tasa hori behar bezala aplikatzeko behar diren datuak eman beharko dituzte hilabeteko epean, tasa honi atxikitako etxebizitza, lokala edo establezimendua eskuratzen den egunetik edo horri eragiten dion edozein aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita, udalak onartutako eredia erabiliz.

6. Salbuespenak. Tasa honetatik salbuetsita daude Burgeluko Udalaren eta haren administrazio-batzarren jabetzako higiezinak, zerbitzu publikorako eta gainerako helburuak betetzeko badira. Ez dira sartzen administrazio-batzarren jabetzako etxebizitzaren edo negozio-lokalen errentariak.

7. Hobariak:

7.- 1.- Tasaren ehuneko hogeiko hobaria aplikatuko zaio titular orori, baldin eta ingurumen-portaera ona egiaztatzen badu baztertutako frakzioei dagokienez, aurreko 2. paragrafoaren arabera.

7.1-1- Hobari horretaz gozatzeko, subjektu pasiboek honako formularioa aurkeztu beharko dute: "Hiri-hondakin solidoen kudeaketari buruzko zerbitzuak emateko tasaren hobari-eskaera."

7.1-2- Udal-teknikariak ikuskapena egingo dute etxean, eta hobari fiskalaren aldeko txostena emango dute honako hauek egiaztatzen direnean:

— Hondakinen bereizketa selektiboa behar bezala egitea (papera, beira, ontziak eta sukaldeko olio).

— Etxean bertan materia organikoaren tratamendu gisa definitutako etxeko konpostajea egitea. Konpostajea eginez gero, sukaldeko landare-hondakin guztiak sartzen direla egiaztatuko da. Lorategiko konpostajea eginez gero, lorategiko hondakinak eta sukaldeko hondarrak uzten direla egiaztatuko da.

Bi kasuetan, konpostaje-prozesu osoa (hondar freskoak, deskonposatzen eta konposatzen ari diren hondakinak) eta mikroorganismoen presentzia ikusi behar dira.

7.1-3- Hobari hori eskuratzeko eskabidea ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da.

7.- 2- Tasaren subjektu pasiboa errentan hartutako etxebizitza baten titularra bada eta errentariak, aldeek sinatutako kontratu edo agiri baliokidean oinarrituta, ordaindu behar badu, ehuneko hogeiko hobaria eman ahal izango zaio ingurumen-portaera onagatik, kasuan kasu, ekitaldi bakoitzeko ekainaren 15a baino lehen errentariak honako dokumentazio hau aurkezten badu:

\* Etxebizitzaren errentariak tasa ordaindu duela egiaztatzen duen kontratuaren edo eraginkortasun juridiko baliokidea duen agiriaren kopia.

\* "Hiri-hondakin solidoen kudeaketari buruzko zerbitzuak emateko tasarako hobari-eskaera" izeneko formularioa.

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

7.- 3. Ekitaldian zehar gertatzen diren alten eta baje kasuan, hobaria hainbanatuta egingo da likidazioa, erroldan altan emandako urteko egunen arabera edo, enpresen kasuan, EJZn altan emandako egunen arabera, betiere konpostaje-lanak benetan egin direla egiaztatzen bada.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**4. ERANSKINA. FOTOKOPIAK ETA ANTZEKOAK EGITEA**

## 1. Aplikazio arauak:

- Tasaren gaia da agirien eta antzekoen fotokopiak eta kopiak egitea, interesdunek eskatuta.
- Zerbitzua emateko eskatzen den unean sortuko da ordaindu beharra. Emateko eskatzen denean ordainduko da zerbitzua, eta autolikidazioaren bidez bilduko da.
- Zerbitzua ematea eskatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ordaindu beharko dute, eta zerbitzuaren gaia ez da entregatuko ez bada haren ordainetan ezarritako tasa ordaintzen.
- Administrazio publikoak oro har, erakunde ofizialak eta Botere Judizialeko organoak tasa hau ordaindu beharretik salbuetsita daude.
- Prezio horiei dagokien BEZaren tasa aplikatuko zaie.

## 2. Tarifak:

	NORMALA EURO	MURRIZTUA EURO	HANDITUA EURO
* DIN A4 fotokopia bakoitzeko (gutxienez 5)	0,15	0,18	0,18
* DIN A3 fotokopiako	0,60	0,60	0,60
* Makina bereziak behar dituzten proiektu eta dokumentuen DIN A3 baino tamaina handiagoko fotokopiak behar izanez gero, kopiagintzako merkataritza establezimenduak Udalari egiten dion fakturaren ehuneko 110.			

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)**5. ERANSKINA. KULTURA ETA KIROL ZERBITZUAK****1. Xedea:**

Tasa honen gaia da Burgeluko Udalak programatutako kultura eta kirol jardueretan parte hartzea eta inskribatzea.

**2. Tarifak:**

Kultura zerbitzuak.

**1. Tailerrak:**

<b>1 h/astea (urteko kuota)</b>	115,70 euros
<b>1 h 30 min/astea (urteko kuota)</b>	117,00 euros
<b>2 h/astea (urteko kuota)</b>	132,60 euros
<b>2 h 30 min/astea (urteko kuota)</b>	146,90 euros
<b>3 h/astea (urteko kuota)</b>	176,80 euros

**2. Irteerak eta txangoak:**

Jardueran parte hartzen duten pertsonak beren gain hartu beharko dituzte guztizko gastuak.

— Prezio horiek garraioari aplikatuko zaizkio, eta eratorzen diren gainerako gastu guztiak parte-hartzaileen kontura izango dira, salbuespen hauekin:

\* Udalak jarduera eten ahal izango du eskainitako plazen ehuneko 50 betetzen ez bada.

\* Prezio horiek ez zaizkie aplikatuko ostatua barne hartzen duten bidaiei.

**3. Monografikoak:**

<b>Iraupena 20-40 ordu</b>	71 euro
<b>Iraupena 10-20 ordu</b>	49 euro
<b>Iraupena 0-10 ordu</b>	26 euro

**4. Ludoteka:**

<b>Bazkide txartela</b>	24 euro
<b>Eguneko sarrera</b>	1 euro

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Kiriol zerbitzuak.

1. Ikastaroak:

<b>1 h/astea (urteko kuota)</b>	102,35 euros
<b>2 h/astea (urteko kuota)</b>	117,30 euros
<b>3 h/astea (urteko kuota)</b>	154,40 euros

2. Elurretarako txangoak:

Jardueran parte hartzen duten pertsonak beren gain hartu beharko dituzte guztizko gastuak.

3. Ezohiko kiroi-jarduerak edo noizbehinkako ikastaroak:

Jardueran parte hartzen duten pertsonak guztizko gastuen ehuneko hau hartu beharko dute beren gain

<b>Iraupena 20-40 ordu</b>	71 euros
<b>Iraupena 10-20 ordu</b>	49 euros
<b>Iraupena 0-10 ordu</b>	26 euros

4. Landederra kiroldegia:

<b>Kantxa osoa alokatzen den ordu bakoitzeko</b>	15 euros
<b>Pilotalekua alokatzen den ordu bakoitzeko (argirik gabe)</b>	8 euros
<b>Kantxa alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)</b>	120 euros
<b>Pilotalekua alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)</b>	64 euros
<b>Badminton pista (argirik gabe)</b>	4,5 euros
<b>Badminton pista alokatzeko 10 saioko bonua (argirik gabe)</b>	36 euros
<b>30 minutuko argiztapena (30 minututik aurrera ordubete kobratzen da)</b>	1,50 euros
<b>Argiztapen ordu baten kostua</b>	3 euros
<b>Argiztapen ordu baten kostua, kantxan bi talde edo gehiago batera ari direnean</b>	3 euros
<b>Argi linea bakarraren kostua</b>	1 euro



AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

Utilización de las máquinas de la sala de musculación:

<b>Egun bateko erabilera</b>	3 euros
<b>Hileko erabilera</b>	23 euros
<b>Hiru hilabete (helduak)</b>	29 euros
<b>Hiru hilabete (-18 urte eta langabetuak)</b>	16 euros
<b>10 saioko bonua</b>	25 euros

Rokodromoa:

<b>EGUNEKO SARRERAK</b>	
<b>18 urtetik beherakoak</b>	2 euros
<b>18 urtetik gorakoak</b>	3,50 euros

<b>HILEKO BONOA</b>	
<b>Menores de 18 años</b>	6 euros
<b>Mayores de 18 años</b>	16 euros

<b>HIRUHILEKO BONOA</b>	
<b>Menores de 18 años</b>	15 euros
<b>Mayores de 18 años</b>	47 euros

Hiruhileko ordainketa honako hilabete hauetan egingo da: urtarrila-otsaila-martxoa, apirila-maiatza-ekaina, uztaila-abuztua-iraila eta urria-azaroa-abendua.

<b>URTEKO BONUA (URTARRILAREN 1ETIK ABENDUAREN 31RA)</b>	
<b>18 urtetik beherakoak</b>	41 euros
<b>18 urtetik gorakoak</b>	129 euros

<b>MATERIALA ALOKATZEA</b>	
<b>Arnesa</b>	2 euros
<b>Girgilua</b>	2 euros

**AYUNTAMIENTO DE ELBURGO**  
(ALAVA)



**BURGELUKO UDALA**  
(ARABA)

**Aplikazio arauak**

Ordainketak honela egingo dira:

- Zerbitzuak eman edo jarduerak egiten direnean, adierazitako zenbatekoa zerbitzua jaso edo jarduera egin aurretik ordaindu beharko da, zuzenean diru sarrera eginez udal kutxan, edo erabiltzaileak eman beharreko banku kontu batean helbideratuta.
- Rokodromoko, muskulazio aretoko eta kantxako tarifak zuzenean ordaindu behar zaizkio kiroldegiaren arduradunari.
- Ludoteka bazkide txartelik gabe erabiltzetatik tarifa instalazioaren arduradunari ordaindu behar zaio.
- Urtero berrituko dira prezioak, kontsumoko prezioen indizearen igoyeraren arabera eguneratuta.

**Hobariak**

- Landederra erabilera anitzeko adierazitako kontzeptuengatik ezarritako tasaren ehuneko 100erainoko hobaria jaso ahal izango da udalak interes publikoko arrazoiak direla-eta hitzarmen bat sinatu duen erakunde, elkarte eta klubentzat, kasu bakoitzean zehazten diren baldintzetan.
- Burgeluko udalerrian erroldatutako pertsonen % 35eko hobaria aplikatuko zaie, ofizioz.

AYUNTAMIENTO DE ELBURGO  
(ALAVA)



BURGELUKO UDALA  
(ARABA)

**6. ERANSKINA. UDALAREN KARGAGUNeko KARGA ELEKTRIKOAREN PREZIO PUBLIKOA**

1. Xedea:

Beren ibilgailu elektrikoa horretarako prestatutako udal kargagunean kargatu nahi duten erabiltzaileentzako karga elektrikoaren prezio publikoa ezartzen da.

2. Zerga egitatea:

Zerga egitatea karga elektrikoaren zerbitzua ematea da, hau da, konexioa eta elektrizitate kontsumoa, bai eta bide publikoaren erabilera eta beharrezko azpiegitura ere.

3. Subjektu pasiboa eta erantzuleak:

Udal kargaguneetan ibilgailu elektrikoaren karga eskatu eta egiten duten erabiltzaileek ordaindu beharko dute.

Ibilgailuen jabeak izango dira erantzule subsidiarioak.

4. Zenbatekoa:

Deskarga tarifa 0.25 €/ kWh izango da.

5. Salbuespenak:

Udal jabetzako ibilgailuak salbuetsita daude ordaintzetik.

6. Sortzapena:

Zerbitzua eskuratzeko eskaera egiten den unean sortzen da prezio publikoa.